- Ebakuaziorako behar izan den denbora, guztira: 4 minutu eta 40 segundo.
- Ebakuaziorako seinalea aktibatzen denetik behar izan den denbora, guztira: 3

minutu eta 30 segundo.

Bisitatik ateratako ondorioak:

- Ebakuazioa egiteari eta/edo entseguan parte hartzeari dagokionez, ordu horretan ikastegian zeuden langileen jarrera ezin hobea izan zen.
- Ikastegiko ebakuazio-arduradunek bulegoetako ate guztiak itxi zituzten.
- Ikastegia hustu ondoren, ebakuazio-arduradunek eta larrialdietako zuzendariak egiaztatu zuten larrialdia izan baino lehen eraikinean zeuden pertsona guztiak biltokian elkartu zirela.

Simulakroan antzemandako anomaliak eta neurri zuzentzaileak:

- Ikastegiko lehen solairuaren ebakuazioa eskaileretatik eta beheko solairuko irteera nagusitik egin da.

Neurri zuzentzailea: Ikastegiko larrialdi planaren arabera, langileei jakinarazi behar zaie lehen solairuko larrialdi- irteerak erabili behar dituztela; hori egin ezean, beheko solairuan jende-pilaketak sor daitezke.

- Ikastegi honek eta Filologia II sailak ate berberak dauzkate kanpoaldeko hesietan, beti giltzaz itxita egoten direnak. Ate horiek irekitzeko urrutiko agintea izan arren, horrek ez du bermatzen barrualdeko patio honetara irteten diren pertsonak harrapatuta gera ez daitezkeenik.

Neurri zuzentzailea: Ahal dela, kanpoaldeko hesietako atea alarmak detektatzeko sistemari konektaturik egongo dira, larrialdia izanez gero automatikoki ireki daitezten. Arriskua gutxitzeko neurri gisa, giltzen kopia bat izango duen kutxatxo bat jar daiteke ate horien ondoan.

- Eraikina husteko denbora larregi behar izan da. Nahiz eta 2 minutu eta 10 segundo pasa zirenean ikastegi barruan zeuden pertsona gehienak kanpora irten, larrialdia 3 minutu eta 30 segundora amaitu zen (sirenak jo zuenetik kontatzen hasita), ebakuazio-taldeko kide batek (atezain nagusia) egin beharreko ibilbidea luzeegia zelako.

Neurri zuzentzailea: Izendapenak aldatu egingo dira eta atezain nagusiaren ordezkari ikastegiko zuzendaria izango da informatika-gelaren gainbegiraketa egingo duen ebakuazio-taldeko kidea.

- Zenbait atetan larrialdi irteeraren seinalea jartzea falta da.

Neurri zuzentzailea: seinale hori jartzea.

- Ikastegian zeuden pertsona batzuk eskaileretatik jaitsi eta biltokira joan beharrean, ate nagusiaren ondoko eskailera-buruan geratu ziren, besteei pasatzea oztopatuz.

Neurri zuzentzailea: biltokiaren kokapen zehatzaren berri ematea.

- Simulakroa egin ondoren, informatika-gelako leihoa zabalik geratu dela konturatu dira.

Neurri zuzentzailea: atea eta leihoak itxi beharra jakinaraztea, sutea egonez gero sua zabaltzea saihesteko.



ELURRETA IKASGELATEGIA

Joan den ostiralean 11:45etik aurrera ELURRETAN egindako simulakroari buruzko datuak:

- Alarma izan aurreko denbora: 2 minutu eta 50 segundo.
- Alarmak jotzen duenetik ebakuazioa burutu arte behar izan den denbora, guztira: **biltoki bietan antzekoa izan da, 4 minutu gutxi gorabehera.**
- Simulakroa amaitu eta ikastegira bueltatzen hasi arte behar izan duten denbora, guztira: 9 minutu.

Ebakuatzeko behar izan duten denbora osoa arrazoizkotzat jo da, egiten den lehen ebakuazio-simulakroa dela kontuan hartuta.

Larrialdia amaitu zela erabaki ondoren, eraikinari begiratu azkar bat eman eta erabat hustuta zegoela egiaztatu zuten.

- 1. biltokian dauden ebakuatuen kopurua, gutxi gorab.: 200-250
- 2. biltokian dauden ebakuatuen kopurua, gutxi gorab.: 300-350
- Sarrera nagusian dauden ebakuatuen kopurua, gutxi gorab.: 250-300
- **EBAKUATU DIREN PERTSONEN KOPURU OSOA, GUTXI GORAB.: 750-900**

Laburbilduz, eraikina erabat eta arrazoizko denboran ebakuatzea lortu denez, arrakastaz egin dela esan dezakegu; hori guztia ikastegiko larrialdi taldeetako partaide guztien lankidetzari eta koordinazioari esker, hau da: gerenteordetza, liburutegia, administrazioa, ikasgelategiko AZPkoak, IISIG, institutuak, segurtasuna, arkitektura, ingeniariak eskolako eta filologiako irakasleak, prentsa-kabinetea eta sindikatuak. Jakina, ikastegian zeuden ikasleen lankidetzari esker ere izan da



ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA

Errektoreordetzan egin den ebakuazio orokorreko simulakroari buruzko ondorioak, datuak eta anomaliak azalduko ditugu:

- Eraikina hustu zuten pertsona kopurua: 36
- Simulakroaren hasiera-ordua (larrialdietako sakagailua aktibatzea): 13:06
- Ebakuaziorako behar izan duten denbora, guztira: 2 minutu eta 36 segundo

Bisitatik ateratako ondorioak:

- Ebakuazioa egiteari dagokionez, ordu horretan ikastegian zeuden langileen jarrera ona izan zen.
- Ebakuazioan zehar inork ez zuen igogailua erabili.
- Ikastegiko ebakuazio-arduradunek bulego guztietako ateak itxi zituzten.
- Ikastegia hustutakoan, ebakuazio-arduradunek eta larrialdietarako zuzendariak egiaztatu zuten larrialdia izan baino lehen eraikinean zeuden pertsona guztiak biltokian elkartu zirela.

Simulakroan antzemandako anomaliak:

- Ikastegiko langileek diote sarrerako atariko komunetan ez dela sirena-hotsik entzuten; hori hala den egiaztatu beharko da.
- Sotoko biltegitik irteteko atea giltzaz itxita dago orain. Ate horren ondoan jarriko den kutxatxo baten barruan giltzaren kopia bat eduki beharko da.
- Beheko solairuko fotokopia-gelan dagoen larrialdietako atea itxita dago eta, une hauetan, material batzuekin blokeatuta dago.

INGENIARITZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

Datu orokorrak:

- Titularra: Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola
- Herria: Vitoria-Gasteiz
- Simulakroa egin zen data: 2006/12/12
- Larrialdia: sutea konpresore-gelan.
- Ebakuatutako pertsonen kopurua, guztira: 250

EBAKUAZIOAREN IRAUPENA:

EKINTZAK/GUNEAK	DENBORA (sirenak jotzen duenetik)
LARRIALDIETAKO ZUZENDARIARI ABISATZEA	2 min. 30 seg.
EBAKUAZIO ALARMA	4 min. 30 seg.
BILTOKIA (250 pertsona, gutxi gorab.)	9 min.

Oharrak: 2 minutuko atzerapena egon zen, alarma aktibatzeke aukeratu zen detektagailuak ez zuelako kearekin/sprayarekin erreakzionatu. Akatsa idatziz jaso da.

SIMULAKROAN ANTZEMANDAKO AKATSAK:

- **Sirenak:** sotoan ez dira ia entzuten; gune horretan sirenak jarri beharko dira, behar bezala entzungo direla bermatzeko.

- Detektoreak:

- Atezaintzaren ondoan dagoen detektorea ez zen aktibatu, kea eta spraya erabili arren.
- Ikastegiko aire-konpresorea dagoen sotoan detekzio-puntu bat instalatzea falta da.

- Kontrol-gunea:

- Ez dago aurre-alarma aldirik, detekzio-modulu bat aktibatu bezain laster kontrol-guneak sirena aktibatu egiten du. Bost minutuko aurre-alarma aldia egon beharko da.
- Sirena-hotsa (ebakuazio-alarma) bost minutu irauteko prestatuta dago, ondoren gelditu egiten da. Alarmak norbaitek, nahita, itzali arte jo behar du.
- Kontrol-guneak errore-mezu bat bidaltzen du etengabe, bateriei buruzkoa (dena den, badirudi mezu horrek ez duela eraginik beronen funtzionamenduan).
- Ate-atxikitzaileak larrialdia gertatu den solairuko suaren aurkako ateetan baino ez dute eragiten.
- Ebakuazio-alarma zuzenean, modu argi eta nabarian aktibatuko duen botoi bat kontrol-gunean jartzea komeni da.

- Suaren aurkako atek:

- Sotoan dauden suaren aurkako ate batzuek ez daukate atxikitailerik; ondorioz, ez dute sektorizatzen. Suaren aurkako ate guztietan atxikizailerik jarri behar dira.
- Simulakroan, suaren aurkako ate batzuk erdi irekita geratu ziren; ez ziren orden egokian itxi eta, beraz, ez zuten sektorizatzen.
- Administratzailearen bulego ondoan dauden suaren aurkako bi ateen eskuma aldeko orriko barra antipanikoa trabatuta geratzen da, sakatzen saiatzean.

- Ebakuazio-bideak:

- Dorretik sarrerako atarira eta S3 irteerara irteteko atek ebakuazioaren noranzkoaren aurkako aldera irekitzen dira

OHARRAK:

Ebakuazioan parte hartu duten guztien jarrera orokorra ezin hobea izan zen, izan ere ikastegian zeuden langileak biltokira modu ordenatuan joan ziren. Aipatutako biltokia ikastegiko atzealdean zegoen.



.- SEINALEZTAPENA

2006. urteari dagokion aldian, seinaleztapenari dagokionez jarduketa hauek egin dira:

- Dagokion bisitak egin ondoren, Farmazia Fakultateko laborategian dauden arriskuen berri emateko seinaleztapena diseinatu da, berau kuantifikatu eta kokatuz. Era berean, ebakuazio- eta babes-elementuak seinaleztatu dira (sunitzalgailuak eta suetarako ur-hartune hornituak).

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua arduratuko da aipatutako instalazioa jartzeaz.

- Behin dagokion bisitak eginda, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateari dagokion ebakuazio-seinaleztapena diseinatu da, berau kuantifikatu eta kokatuz.



Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko seinaleztapenaren xehetasuna

INGURUMEN ARLOKO EKINTZAK

2006an zehar, hainbat ekintza gauzatu dira ingurumenaren arloan. Hauek dira azpimarragarrienak:

INGENIARITZA ESKOLA

- Ikastegian sortutako hondakin arriskutsuei etiketak jartzearen inguruan aholku ematea. Ikastegian lehendik zeuden etiketei eredu arautu bat gehitu zaie, Prebentzio Zerbitzuko Arlo Teknikoko ingurumen-teknikariak proposatuta.

FARMAZIA FAKULTATEA

- Ikastegiak eskatuta, dagokion gestioak egin dira, bertan sortutako olio erabiliak behar bezala kudeatzeko, gestore egoki batek gaikako bilketa egiteari begira.
- Administratzaileak eskatuta, hondakin biologikoak kudeatu eta kentzeari dagokionez, arautegi-kontuetan aholku ematea.
- Idazkari akademikoak eskatuta, hondakin erradiaktiboen bi kasu puntualetan hondakin horiek kudeatu eta kentzeari ekin zaio. Kasu batean kromatografo baten neurgailu batetik datoz, eta bestean jatorria ezezaguna da.

ISTRIPUEN ETA GORABEHEREN IKERKETA

2006an zehar campusean baja eragin duten 2 istripu gertatu ziren eta pertsona bat berriz gaixotu zen (2005ean izandako istripuaren ondorioz).

Baja hartu beharra eragin duten istripu biak in itinere (hau da, lanerako bidean) izan ziren.

Halaber, bajarik eragin ez zuten 8 istripu gertatu ziren. Horietatik:

- 6 in itinere izan ziren.
- Beste batek ebakia egin zuen.

- Eta beste bat maila berera jausi zen.

Gainera, kalte pertsonalik eragin ez duten 3 gorabehera ikertu dira:

- Farmazia Fakultatean kutxa-izozkailu bat matxuratzea:

Gobehera hori zela-eta, azkenean suhiltzaileak Fakultatera joan behar izan ziren, kutxa-izozkailu barruan gordeta zeuden materialak kentzera.

- Ingeniaritza Eskolan aire-konpresore bat matxuratzea:

Konpresorearen zorro batek olio-jarioa izatearen ondorioz, motorra gelditu eta alarma-seinalea piztu zen (tenperatura zela-eta). Ohiko prozedurari jarraiki, ikastegiko langileek alarma itzali eta ekipamendua berriro martxan jarri zuen. Logikoa denez, motorra oliorik gabe martxan jarri izanak berau gripatzea eragin zuen eta, horren ondorioz, ke handia zabaldu zen ikastegi osoan. Gorabehera horren ondorioz, ikastegia hustu eta Gasteizko suhiltzaileei deitu behar izan zieten.

- Ingeniaritza Eskolako aire-konpresore bat matxuratzea:

Lehen aipatutako konpresore bera.

.-BATZORDEETAN PARTEHARTZEA eta ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA

BATZORDEAK

Arabako Campuseko Gerenteordetzak eskatuta, lehentasunak ezartzeko txosten oso bat egin da, campusean aurreikusita dauden obren segurtasun-irizpideak barne hartzen dituen. Aipatutako txostena campuseko aparejadorearekin batera (Arkitektura Zerbitzuko dena) koordinatu da eta ikastegiek eskatutako obrak zein Errektoreordetzaren irizpide teknikoei erantzuten dietenak jasotzen ditu.

Txostena parametro hauen arabera egin da:

Jardueraren lehentasuna kontuan izanda, hiru maila desberdinu dira:

- **Lehentasunezko maila:** ekintza ez burutzeak dakarren arriskua gauzatzearen ondorioz kalte larriak sor daitezkeenean pertsonengan nahiz ondasunetan.

Maila honi dagokionez, faktore hauen arabera finkatu dira lehentasunak:

Eragindako erabiltzaile kopurua
Arrisku-egoera dela-eta izandako gorabeherak

Arriskua gauzatzearen ondorioz izandako kalteen larritasuna
Arriskua gauzatzearen probabilitatea

- Tarteko maila: ekintza ez burutzeak dakarren arriskua gauzatzearen ondorioz kalte nabarmenak sor daitezkeenean edota pertsonentzat oso deserosoa denean.
- Maila baxuagoa: ekintza ez burutzeak dakarren arriskua gauzatzearen ondorioz kalte arina sor dezakeenean edota pertsonentzat deserosoa denean.

Esan beharra dago, baita ere, maila horietan sartzen ez diren gainerako jarduerak laneko arriskuen prebentzioko irizpideen arabera lehentasunezkoak ez izan arren, campusak dituen helburuen arabera bai izan daitezkeela lehentasunezkoak.

Laburbilduz, zenbait kasutan prebentzio-zerbitzuak ez du jarraibiderik eman erabakiei buruzko lehentasunak ezartzerakoan, adibidez gune berriak, instalazioak, baliabideak, etab. egokitzeari dagokionez.

Oharra: irisgarritasunarekin zerikusia duten gaiak ere lehentasun handiko atalean sartzen dira.

ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

Campuseko garbiketa-zerbitzuen enpresa esleipendunarekin (Limpiezas Gutiérrez, S.L.) bilerak egin dira, aipatutako jarduerak segurtasun-baldintzetan koordinatu eta egiteko.

2.2.3.- GIPUZKOAKO CAMPUSA

ARRISKUEN EBALUAZIOA

Arriskuak identifikatzeko I eta II faseak burutu ondoren, 2006an Gipuzkoako campusean honako hauek ebaluatu dira:

- Arriskuak, eraikinaren arabera
- Arriskuak, jardueraren arabera

EBAKUAZIO SIMULAKROAK

Simulakro hauek egin dira:

- Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F. (FHZF): martxoaren 23an
- Erizaintza UE: azaroaren 15ean
- UE Politeknikoa: abenduaren 30ean

FHZFko ebakuazio-simulakroaren ondoren egindako hobekuntza-proposamenak (2006ko martxoa)

Fakultatean egindako ebakuazio-simulakroari buruzko txostena kontuan izanik, simulakroaren prestaketan eta gauzapenean zenbait gabezia egon direla ikusita, hobekuntza-proposamen hauek egin dira:

- Sua antzemateko eta alarma jotzeko sistema:
 - FHZFko alarma-sistema Psicología Fakultatearenetik bereiztea. Horrela, fakultate batean sua antzematen bada, beste fakultatera seinalea bidaliko da, baina ez alarma-hotsa. Gainera, modu horretan FHZFko alarma bertako zentralitatik kontrolatu ahal izango da, beste fakultatean dagoen zentralita “nagusira” jo beharrik gabe.
 - Sirenen egungo alarma-tonuaren ordeztu (“txistua”) beste bat jartzea.

Alarma entzun ez den guneetan sirena gehiago jartzea:

- Kafetegian.
- Garajeetan.
- Bibliotekan.
- Eraikinaren “iparraldeko” muturrean, solairu guztietan.

- Detektore gehiago jartzea, “guztionak” diren tokiez gain, beste batzuk ere babes ditzan, hala nola ikasgelak, bulegoak, mintegiak, ekitaldi-aretoa...
- Alarma “atzeratzeko” sistema bat jartzeko aukera aztertzea, alarma martxan jarriz gero atezaintzan argia eta sirena txiki bat soilik piztu daitezen, baina alarma-sistema osoa aktibatu gabe. Horrela detekzioa egokia den edo alarma faltsua den egiaztatu ahal izango da.
- Erabiltzen ez diren elementu “zaharrak” (sakagailuak, etab.) kentzea.
- Suteak itzaltzeko sistema:
 - Itzalgailuak: itzalgailuak eta horien barruko gaiak toki egokietan jarrita dauden aztertzea.
 - Sutetarako ur-hartune hornituak: 45 mm-koen ordeztu, 25 mm-koak jartzea.
 - Itzaltze-sistema automatikoa ikus-entzunezko aretoetan, etab.: haloia ordez beste osagai bat erabiltzea.
- Sektorizazioa:
 - Alboetako eskaileretara, bulego gunera, eta abarrera sartzeko orain dauden atak RF motakoak diren eta eraikina behar bezala tokibanatzen duten egiaztatzea. Hala ez bada, horiek kendu eta RF atak jarri.
 - Tokibanaketa zuzena izan dadin behar dena egitea (adibidez, garajearen eta “dorreko” eskaileraren arteko komunikazioa itxiz).
- Kanpoko atak:
 - Fakultateko atarira sartzeko aterren bat aldatzeko aukera aztertzea, horien ordeztu arinagoak eta erabiltzeko errazagoak diren beste batzuk jartzeko.
 - “Dorre” aldeko irteerako atearen bigarren orrian izuaren aurkako barra bat jartzea, larrialdia gertatuz gero bigarren orri hori erraz zabaldu ahal izateko.
- Bestelako instalazioak, ekipamenduak, etab.:

- Larrialdietako argien instalazioa berrikustea eta matxuratuta daudenak ordezkatzeko/konpontzea. Beharrezkoa bada, unitate gehiago jarri.
- Eskaileretako eskudelak jartzea horiek falta diren tarteetan
- Eraikin osoan megafonia instalatzea.
- Liburutegiaren goiko solairura igotzea errazteko beste sistema bat jartzeko aukera aztertzea mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat (esate baterako, igogailu bat “itxitako” eskailerak dauden lekuan).
- Sute-alarma aktibatzen denean, garajerako sarbideak blokeatzeko aukera aztertzea.
- Larrialdi Plana ezartzea:
 - “Burualdeko” ikasgela eta bulegoak argiro zehaztea.
 - Atezaintzan egongo den plano batean ebaki-puntuak identifikatzea: gasa, elektrizitatea eta ura.
 - Sute-itzalketari buruzko ikastaro teoriko/praktiko gehiago antolatzea.
 - Ebakuazio-arduradunen komunikazio-sistema optimizatzea.
 - Garbiketa-enpresako langile ezinduak kontuan izatea.
 - Posterrak diseinatu eta jartzea: “Ebakuazio Gidak”.
 - “Biltokia” zehaztasun handiagoz definitu.
 - Kanpoaldean “biltoki”ari buruzko seinaleak jartzea.
 - Fakultate osoan “Hemen zaude” adierazten duten planoak jartzea.
 - Autobabes Batzordeko kideei “txaleko” distiratsiak ematea.
 - Atezaintzako jarduketara-fitxan telefono-zenbaki hauetara abisatu behar dela adieraztea: 112 (SOS Deiak) eta 8430 (segurtasun arloko enpresa).

PRESTAKUNTZA

Ikastaro/jardunaldi hauek eman dira:

- 28/2005 Legea ezartzeko plana (“tabakoaren aurkakoa”): 2006/01/17. 15 partehartzaile.
- Zer egin ustekabeko ihesik edo isurketarik gertatuz gero. 2006/02/22. 5 partehartzaile.
- Larrialdi Planen aurkezpena:
 - FHZF: 06/03/15. 12 partehartzaile.
 - UE Politeknikoa: 15 partehartzaile.
- Altzariei eta ergonomiari buruzko 2 prestakuntza/informazio-saio.
- Garbiketako langile azpikontratatuarekin 3 saio, eraikinaren Larrialdi Plana azaltzeko.

ISTRIPUEN ETA GORABEHEREN IKERKETA

Zk.	Istripua izan duena	Sexu a	Istripuaren azalpena	Oharrak
1	PII	G	KONTUSIOA	
2	PII	G	KONTRAKTURA	IN ITINERE
3	AZP	E	BIDE ISTRIPUA	IN ITINERE. BAJA
4	PII	G	BANKU BATEKIN ESTROPEZU EGITEA	
5	AZP	E	MINA HATZ BATEAN	
6	AZP	G	BIDE ISTRIPUA	IN ITINERE
7	AZP	E	FHZFko ESPALOIAN JAUSTEA	
8	AZP	G	ESKAILERETAN BEHERA JAUSTEA	FHZFko GARAJEA
9	AZP	E	ESKAILERETAN BEHERA JAUSTEA	
10	AZP	G	BIZIKLETATIK JAUSTEA	IN ITINERE
11	PII	G	ZAINTIRATUA	IN ITINERE
12	AZP	E	ATEAK ATZAMARRA HARRAPATZEA	
13	IKASLEA	E	ZORABIOA	?
14	AZPIKONTRATA	E	HIRUGARREN SOLAIRUTIK JAUSTEA	KORTA ERAIKINA
15	-----	----	FATXADAKO "LETRAK" JAUSTEA	ZUZENBIDE F.
16	-----	----	FATXADAKO "ILAUNA" APURTZEA	IRAKASLEEN UE
17	IKASLEA	G	AULKIA APURTZEA	
18	PII	G	ARRAPALAN JAUSTEA	
19	-----	----	ZUHAITZAK JAUSTEA	INFORMATIKAKO APARKALEKUA
20	-----	----	ZUHAITZA JAUSTEA	ERREKTOREORDETZA
21	AZPIKONTRATA	E	GARBIKETA PRODUKTUA BEGIAN SARTZEA	
22	IKASLEA	E	HARRAPATZEA	"IN ITINERE"
23	-----	----	ZENTROKO ALARMA AKTIBATZEA	
24	-----	----	ZENTROKO ALARMA AKTIBATZEA	

Jakinarazi/ikertutako istripu/gorabehera kopurua 2005ekoa baino askoz txikiagoa da. Gorabehera eta istripu guztiak Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi behar zaizkiola gogorarazten jarraitu behar da.

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO LANGILE BERRIEI HARRERA EGITEKO PROZEDURA

HELBURUA

Prozedura honen helburua da Prebentzio Zerbitzuak Gipuzkoako campusean jarduteko prozedura bat finkatzea. Aipatutako prozedura UPV/EHUko langile berriei (irakasle eta ikertzaileak eta AZPkoak) zuzenduta egongo da.

ERAGIN EREMUA

Prozedura honetan Gipuzkoako campusean langile berri gisa lanean hasten diren pertsona guztiak barne hartuko ditu (irakasle eta ikertzaileak eta AZPkoak).

DEFINIZIOAK

Langile berria: Gipuzkoako campuseko lanean hasten den pertsona oro, baldin eta baldintza hauetakoren bat betetzen badu:

- Azken 12 hilabeteetan UPV/EHUⁿ lan egin ez izana.
- Lehenago bete ez duen lanpostu batean aritzea.

HARRERA PROGRAMA

Pertsonaleko Gerenteordetzak Prebentzio Zerbitzuaren Osasun Arloari langile berriak kontratatu direla jakinarazten dionean, aipatutako Zerbitzua langile horiekin harremanetan jarriko da, odol eta gernuaren laginak ateratzeko hitzordua emateko. Halaber, beste hitzordu bat emango dio sarrerako osasun-azterketa egiteko, analitiken emaitzak “eskura” dituela.

Osasun Arloak Arlo Teknikoari osasun-azterketa zein ordutan egingo den jakinaraziko dio; azken hori, behin azterketa burututa, langile berriarekin bildu dadin. Bilera horretan gutxienez gai hauek azalduko dizkiete:



- Prebentzioaren antolamendua UPV/EHUⁿ.
- Laneko Arriskuen Prebentzio arloari buruzko Gestio Integratuko Sistema.
Prebentzioaren Gestio Prozedurak
- Lanpostuaren arrisku orokorrak.
- Larrialdietako plana.
- Istripuak eta gorabeherak

Informazio/prestakuntzaren gutxieneko iraupena 30 minutukoa izango da esperimentalak ez diren ikastegietako langileentzat eta ordubetekoa ikastegi esperimentaleko langileentzat.

Langile berriak jasotako informazioa/prestakuntza sinatuko du.

TXOSTENAK

Txosten ugari egin dira, hainbat gai jorratu dituztenak: lantokiak, laborategiak eta tailerrak, era askotako instalazioak, hondakinak, larrialdietako planak, etab.



“Agenda 21” Kontseilu Aholku-emailean partehartzea. Donostiako Udala.
Gipuzkoako campuseko zentro hauetan Ekogestio Planak bultzatu eta
garatzen laguntzea:

- UE Politeknikoa
- Erizaintzako UE
- Enpresa Ikasketen UE: Ekoscan ziurtagiria
- Errektoreordetza
- Psikologia F.

Hondakin kimikoen sailkapena. Etiketak.

Ingurumenari loturiko hainbat gaiei buruzko dokumentazioa prestatzea.

Hondakinen barne- eta kanpo-gestioa.

URTEKO PROGRAMAZIOA

Jarraian 2006rako programatu ziren ekintzen laburpena zerrendatu dugu, ekintza horiek egin diren ala ez adierazita:

ARLOA	HELBURUA	EGINDA		
		BAI	EZ	OHARRAK
INGURUGUNEA	Ekogestio Planak bultzatzea	X		UE Politeknikoa, Erizaintzako UE, Enpresa Ikasketen UE (Ekoscan) Errektoreordetza, Psikologia F.
	Hondakinen Gestioa kudeatzea	X	X	Etiketatzeta, etab.
	Administrazio-izapideak (emisioak,...)	X	X	"Jarduera-lizentziak" plegua
	Ingurumen alorreko bestelako jarduerak	X		
LAN ARRISKUEN LABORAZIOA	AZPko lanpostuen azterketa	X	X	Soilik jardueren arabera
	Eraikinen arrisku orokorreari buruzko azterketa	X		
	Ekipamenduen arrisku orokorreari buruzko azterketa		X	Ezin izan da egin
	Makineria-egokitzenari buruzko azterketa		X	Ezin izan da egin
	Irakasle eta ikertzaileen lanpostuen azterketa, sailaren arabera	X	X	Soilik jardueren arabera
	Neurketak lanpostuetan		X	
	Arrisku psikosozialen ebaluazioa (ISTAS XXI)		X	Campus arteko Batzordean "trabatuta" geratu da
LARRIALDI PLANAK	Ebakuazio-simulakroak	X	X	3 eginda, gainerakoa egiteke
	Egiteke dauden Larrialdi Planak idaztea		X	Urte amaiera aldera esleitua
	Larrialdi Plan "zaharrak" aldatzea		X	Urte amaiera aldera esleitua
	"Hemen zaude" adierazten duten planoak jartzea	X	X	
	Ebakuazio-seinaleak aldatzea/jartzea	X	X	
	Larrialdietako sistemen estandarra garatzea	X		
	Estandarra dela-eta, dauden gabeziak definitzea		X	
	Suhiltzaileekin batera zentroetara bisitak egitea		X	
PRESTAKUNTZA	Prestakuntza espezifikoa: prebentzio-ordezkariek	X	X	2/4
	Prestakuntza espezifikoa: Prebentzio Zerbitzua		X	Gestionatzeke
	Ikastaroak: "Bulegoko lanetako arriskuen prebentzioa"*		X	Bertan behera utzi da
	Ikastaroak: larrialdi-planak, su-itxaltzea, etab.	X	X	Sute-itxalketa: AZPkoei soilik
	Bestelako ikastaroak (hondakinak, labeategietako segurtasuna, etab.)	X	X	Ikastaro batzuk egiteke daude
	Langile berriei harrera egitea	X	X	78 langile berri
	Datuak jasotzeko inprimakia webgunean	X		Istripuak/gorabeherak, guztira:

GERTAERA ETA ISTRIPUEN IKERKUNTZA	eskegitzea			24
	Datu bilketa zentro guztietara zabaltzea	X	X	
	Izandako istripu eta gorabehera guztiak ikertzea	X	X	Langile/jakinarazpen falta
OSASUN	Osasun-azterketa espezifikoak/aldizkakoak/sarrerakoak	X		
	Txertoak jartzea	X		
	Unibertsitateko kideei osasun arloko arreta ematea	X		
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO S ETA O	Gipuzkoako campuseko S eta O Batzordearen bilerak	X		
	Plangintza-bilerak: eztabaidagaiak	X		
	Prebentzio-planak bultzatzea	X		
	Jarduera-planaren jarraipena egitea	X		
BESTELAKOAK	UPV/EHU "tabakoaren aurkako" legera egokitzen laguntzea	X		

2.2.4.- INGURUMEN KUDEAKETA

Euskal Herriko Unibertsitateak aniztasun zabala du ingurumen-gaietan:

- a) Hondakinak: elektronikoak, arriskutsuak, osasun arlokoak, erradiaktiboak.
- b) Kolektorera egindako isurketak
- c) Laborategietatik, berokuntza-sistematik eta errausketatik sortutako gasen emisio-fokuak.
- d) Hondakinak bildu eta tratatzeko azpiegiturak.
- e) Gas eta energia instalazio osagarriak.
- f) Era askotako lehengaien kontsumoak.

Horregatik, litekeena da ingurumen alorrean indarrean dagoen egungo arautegi zabalak unibertsitatea ukitzea.

Gainera, barne-jarduerako baliabideen kontsumoa garapen iraunkorrarekin bat gestionatu beharrak konplexutasuna gehitzen dio.

Kanpo-kudeatzaileak onartutako taldeen arabeko hondakin toxikoen etiketatze berriak indarrean dagoen legedia betetzeaz gain, nahasketa desegokiak eta istripuak ekiditen laguntzen du. Era berean, hondakinen gestioaren kanpo-kostua optimizatzen da, jatorrian sailkatzeko balio baitu. Etiketatze modu berri hori zentro gehiagotara zabaltzen ari da eta erabiltzaileek begi onez ikusten dute. Beste alde batetik, etiketatze horren baitan talde berriak sartzen ari dira, jatorriko banaketa erraztearren eta arriskuak gutxitzeko.

Biltegietan isurketen aurkako erretentzio-sistemak instalatzen ari dira. Horrez gain, suteen aurkako babesaren segurtasunean eta biltegiratze moduan bertan hobekuntzak egin dira.

Hondakin elektrikoak eta elektronikoak 208/2005 EDaren bidez gestionatzen dira. Horrela, hondakin arriskutsu gisa gestionatzeak baino kostu txikiagoa dute eta hondakin bereziak biltegiratzeko leku gutxiago behar dute.

Hondakin biologikoei dagokienez, barne-inertizazioa sustatzen saiatu da, indarrean dauden parametro teknikoak errespetatuz, emaitzak desberdinak izan direla.

Legeztatzeak eta baimenak

Ingurumen arloko kudeaketaren beraren (kanpokoa nahiz barrukoa) hobekuntzari hertsiki loturik dago.

Amaieratik hasita, duela gutxi UPV/EHUren jarduerak legeztatzeko esleipen-proposamena egin da. Hiru motakoak izan daitezke: exentuiak, kaltegabeak eta sailkatuak. Jardueraren barne-garapenerako energiaz eta bestelako intsumoez hornitzen duten hainbat instalazio legeztatu egin behar dira. Urte honetan zehar behar den informazioa bildu eta dagokien erakunde publikoei legeztatze horiek eskatzen hasiko dira

2006an zehar Odontologia Klinikako legeztatzea egin da osasun-hondakinen ekoizle gisa eta legeak eskatutako Kudeaketa Plana burutu da.

Eusko Jaurlaritzak unibertsitatean egiten den hondakin elektronikoen kudeaketaren prozedurak homologatzea ere lortu da.

Horrek bi abantaila garrantzitsu izango ditu epe laburrean. Alde batetik, dirua aurreztu egiten da hondakin elektronikoak produktu horien hornitzaileekin zuzenean hondakin elektroniko gisa gestionatuta (eta ez hondakin arriskutsu gisa, halakoetarako baimendutako kudeatzaileekin). Beste alde batetik, hondakin elektronikoak arriskutsuen katalogotik kentzeak dakarren exentzioari esker egin gabe dauden hainbat legeztatze gauzatzea errazten du, hala nola hondakin toxiko eta arriskutsuen ekoizlearena. Gainera, Osasun Hondakinak Kudeatzeko Planak idaztea errazten du, aipatutako legeztatzea ekoizle txikiarenari lotzeko aukera dagoelako.

Lehen aipatutakoari berriro helduz, Eusko Jaurlaritzako teknikariekin hitz egin ondoren, ekoizle txikiak diren zentroen kasuan badirudi bideragarriagoa dela Osasun Kudeaketako Planak hondakin toxiko eta arriskutsuen lege-eskakizunetan oinarrituz egitea; aipatutako zentroak gehiengo dira unibertsitatean. Osasun-hondakinen kanpo-kudeaketa Araba eta Gipuzkoako campusetan kanpora ateratzen da; Bizkaian, berriz, gehienetan barne-balorizazio prozesuak egiten zaizkie. Bizkaian hondakinak balorizatzeko instalazioak legeztatu egin behar dira. Gutxi gorabehera %80-90 Medikuntza eta Odontologia Fakultatek dator eta gainerako %10-20 Zientzia eta Teknologia Fakultateik. Osaketari dagokionez, antzeko ehunekoak ditugu: %80-90 gorpuzkin eta kumealdiak, %10-20 xiringak eta bialak, etab. Epe ertainera zenbait ikastegi Bilbora aldatuko direnez, aipatutako legeztatze-aukerak Leioako campusean geratuko diren hondakinen ekoizpen-unitateen arabera izango dira; horren haritik, garrantzitsua da abeltegien etorkizuna zein izango den jakitea. Behin ikastegien kokapena finkatuta, ekonomiaren, teknikaren eta ingurumenaren ikuspuntutik izango duen bideragarritasuna zehazkiago aztertu ahal izango da eta, azterketa horren arabera, dagokion inbertsio-

proposamena egingo da. Hainbat aukera daude: bertan ezabatzea errausketaren edo autoklabe bidezko tratamenduaren bitartez edo zerbitzua kanpora ateratzea; edota aurreko aukeren konbinazioak.

Ingurumen arloko egiaztagiria

Gaur egun, ingurumen arloko egiaztagiriei dagokienez, gure inguruan hiru erreferentzia erabiltzen dira oinarri gisa.

Alde batetik, ISO 14001 daukagu, nazioartean aitorten zabala duena. Europako mailan, berriz, EMAS egiaztagiria dago eta azkenik, tokiko mailan, Ekoscan.

ISO 14001:2004 eta EMAS Ingurumen Kudeaketako Sistemen egiaztagiria luzatzeko balio duten arauak dira. ISO 14001 bera sarri erabiltzen da EMAS arauaren araberrako egiaztagiria eskuratzeko alde aurretiko urrats gisa; azken hori zorrotzagoa da, hainbat eskakizun bete behar baitira: ingurumen arloko adierazpena, hasierako derrigorrezko berrikuspena, zeharkako ingurumen-alderdien aintzatespena, jendeak eskura ditzakeen ebaluazio-irizpideak eta hornitzaile/azpikontratatistak ingurumen-politikan inplikatzeko.

Edozelan ere, ISO 14001 eta EMAS arauak epe laburrera hainbat baldintza bete beharra dakarte, hala nola, langile espezializatuen egitura, baliabide tekniko eta ekonomiko jakin batzuk, aktibo finko eta zirkulanteetako inbertsio-politika eta legediaren betearazpen maila handia; hori guztia dela eta, enpresa eta erakunde askotan epe laburrera ez da bideragarria izaten.

Egiaztagiriei dagokienez, tarteko aukera bat eskaintzearen, gure inguruan Ekoscan araua ezarri da. Arau horri esker, ingurumen arloko jokabidearen hobekuntza ezarri eta neur daiteke. Izan ere, hobekuntzaren emaitzak egiazta daitezke, langileei parte hartzeko aukera ematen die, ingurumen arloko adierazleak erabiltzen ditu, hobekuntzaren alderdiak lehenesten ditu, ekonomiaren, teknikaren eta ingurumenaren arloko alderdiak kontuan hartzen ditu eta hobekuntza-plan bat ezartzen du, horren jarraipena eta neurketa barne.

Azken urtean zehar bi ikastegi egiaztatu dira, Ekoscan erreferentzian oinarrituz, Enpresa Ikasketen Eskola eta Unibertsitate Eskola Politeknikoa, hain zuzen. Halaber, beste batzuk lortze-bidean daude. Kontuan izan behar da hondakin arriskutsuak ekoizten dituzten zentroak egiaztagiria eskuratzeko lanean hasi direla, Prebentzio Zerbitzuak proposatutako kutsaduraren prebentziorako neurriak ikuskarpena eta ondorengo egiaztapena egiten duten enpresen aldetik onartuak izaten hasi direnaren seinale.

2.3.- ARLO TEKNIKOA. PRESTAKUNTZA.

Ikastaroa	Lekua	Izenemateak	Onartuak
Segurtasuna laborategietan 2006ko maiatza-ekaina	Gasteiz	3	3
	Bilbo	0	-
	Leioa	9	9
	Donostia	7	7
	Guztira	19	19
Bide-segurtasuna 2006ko maiatza-ekaina	Gasteiz	3	-
	Bilbo	2	-
	Leioa	10	10
	Donostia	3	-
	Guztira	18	10
Larrialdietako planak 2006ko maiatza-ekaina	Gasteiz	0	-
	Bilbo	5	5
	Leioa	28	20
	Donostia	12	12
	Guztira	45	37
Laneko seg. eta osasuneko kontzeptuak 2006ko maiatza-ekaina	Gasteiz	5	5
	Bilbo	2	-
	Leioa	28	20
	Donostia	14	14
	Guztira	49	39
Suteen prebentzioa 2006ko urria-abendua	Gasteiz	15	15
	Leioa	25	16
	Donostia	26	16
	Guztira	66	47

11.

ERANSKINAK

TXOSTEN HONETAN ERABILITAKO LABURDURA ZERREDA.

1.- IKASTEGIEI DAGOZKIENAK.

- Arte Ed.: Arte Ederren Fakultatea.
- Giz. eta Kom. Z.: Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Ek. eta Enp. Z.: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea.
- Ind. eta Tel. Ing.: Industria eta Telekomunikazio Ingeniarren Eskola Teknikoa.
- Kim. Z.: Kimika Zientzien Fakultatea.
- Arkit.: Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- FHZF: Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- FGHF: Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea.
- Irak.: Irakasleen Unibertsitate Eskola.
- JF eta KZF: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea.
- EUE: Erizaintzako Unibertsitate Eskola.
- Enpr. Ik.: Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola.
- IITUE: Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola.
- UEP: Unibertsitate Eskola Politeknikoa.
- MITUE: Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola.
- Lan. Harr.: Lan Harremanen Unibertsitate Eskola.
- IITUE –E-: Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (Eibarkoa).
- Giz. Lan.: Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola.
- IITUE –GA-: Industria eta Topografia Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola (Gasteizkoa).
- Zerb. Nag.: Irakaskuntzari laguntza emateko zerbitzuak eta egiturak, hala nola errektoreordetzak, Gerentzia eta gerenteordetzak eta bibliotekak.

2.- LAN-KONTRATUEI DAGOZKIENAK.

- EME.: Unibertsitateko/unibertsitate-eskolako irakasle emeritua
- KAT.: Unibertsitateko/unibertsitate-eskolako katedraduna
- TIT.: Unibertsitateko/unibertsitate-eskolako irakasle titularra
- LM: Laborategiko/taillerreko maisua, MUFACera atxikia.
- BEH.: Unibertsitateko/unibertsitate-eskolako behin-behineko irakasle titularra.
- IK: Unibertsitateko/unibertsitate-eskolako irakasle kontratatua.
- AZP: Administrazio eta zerbitzuetako pertsonala.

ERABAKIA, 2003ko APIRILAREN 7koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, UPV/EHUren BERAREN PREBENTZIO ZERBITZUA ERATU, ANTOLATU ETA ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA ZEHAZTEKO DENA.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, indarrean jartzeak aldaketak eragin ditu administrazio publikoetan, lanpostuko arriskuen prebentzioaren bidez langileen osasuna babesteko politiken arloan, hain zuzen ere; izan ere, lege hori laneko araudi ez ezik, funtzionario publikoen estatutueta oinarritzko araudi ere bada.

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea garatzeko, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoa, argitaratu zen, eta errege-dekretu horretako 14. artikuluan zehaztuta dago 500 langiletik gora dituzten enpresek beren prebentzio zerbitzua eratu behar dutela, eta eratu ez ezik, prebentzioaren arloko jarduerak betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialak ere izan beharko dituztela.

Hori guztia kontuan hartuta, langileen ordezkarietara kontsulta egin ondoren EHUko Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordearen bidez, 2003ko martxoaren 7an CCOO, CSIF, ELA, LAB, STEE-EILAS eta UGT sindikatueta prebentzioko ordezkarietara adostu ondoren eta eman dizkidaten eskumenen babesean, honakoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Prebentzio Zerbitzua eratzea.

EHUren Prebentzio Zerbitzua osatuta dago eta gerenteari atxikita egongo da.

Bigarrena.- Definizioa eta helburua.

EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzioaren arloko zeregina betetzeko beharrezko diren giza baliabide eta baliabide materialez osatuta dago, horien bidez unibertsitateko kideei babesa emateko segurtasun eta osasunaren arloan. Zeregin horretan aholku eta laguntza emango diete administrazioari, langileei, horien ordezkarietara eta campus arteko laneko segurtasun eta osasun batzordeei.

Hirugarrena.- Jarduera-eremua.

Prebentzio Zerbitzuak EHUko langile guztiei eragiten die.

EHUko errektoreak eta gerenteak zehaztu eta zainduko dituzte laneko segurtasun eta osasunaren arloko helburuak, unean uneko indarreko araudiari jarraituz.

Laugarrena.- Baliabide materialak eta aurrekontua.

Aurrekontu-sail berariazkoak zehaztuko dira programa bakoitzerako, EHUko prebentzio-jarduerak abian jarri, egoki bete eta neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko, eta prebentzio-jarduerak betetzeko beharrezko instalazio eta baliabide materialak eskuratzeko, beti ere, aurrekontuei buruzko araudiari jarraituz.

Bosgarrena.- Antolaketa.

1.- Prebentzio Zerbitzua bi arlotan banatuta egongo da: Osasun Arloa eta Arlo Teknikoa. Zerbitzuan, beraz, alor desberdinetakoak arituko dira, baina elkarlanean aritu beharko dira urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzekoak, 15. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

1.1. Osasun arlokoen zereginak laneko osasun, ergonomia eta psikosoziologia aplikatuarekin lotutako espezialitateei dagozkienak izango dira. Zeregin horiek betetzeko, eta indarreko araudiari jarraiki, Oinarrizko Osasun Unitateak (OOU) izango ditu, hau da: EHUko gaur egun dituen hiru campusetako bakoitzak Oinarrizko Osasun Unitate bat izango du. Gaur egun EHUko Osasun Zerbitzuan diharduten mediku eta erizainak Osasun Arloan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio lana egiteko.

1.2. Arlo Teknikoan unibertsitateko goi mailako lau titulatu arituko dira: Araba eta Gipuzkoako campusetan titulatu bana eta Bizkaikoan bi. Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuko VI. kapituluaren jasotakoarekin bat, prestakuntza egokia izan beharko dute goi mailako eginkizunak betetzeko prebentzioko berezitasun eta diziplinaren arloan, laneko segurtasun eta industri higienerari dagokionean, hain zuzen.

EHUko gaur egungo prebentzioko teknikariak Arlo Teknikoan sartuko dira. Arlo horrek arduradun bat izango du koordinazio-lana egiteko.

2.- Prebentzio Zerbitzuak zerbitzuburu bat izango du koordinazio eta gestio lanak egiteko.

3.- Arkitektura eta Obra Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, batez ere unibertsitateko azpiegituretan, sarreretan, eraikinen edo instalazioen segurtasunean, ebakuaziorako sistemetan edo antzekoetan neurri zuzentzaileak edo hobekuntzarako bitartekoak ezartzeko edo horien inguruko proposamenak egiteko.

4.- Kontratazio eta Erosketa Zerbitzua elkarlanean arituko da Prebentzio Zerbitzuarekin, indarreko araudia betetzeko beharrezko diren ekipamenduak lortzeko, hain zuzen.

5.- Prestakuntzako arduradunak ere elkarlanean arituko dira Prebentzio Zerbitzukoekin laneko arriskuen prebentzioaren arloan beharrezko diren prestakuntza-planak prestatu eta antolatzeko.

6.- Gerenteak koordinazio lanak eginda, EHUko beste edozein zerbitzu edo langile (batez ere, irakasle eta ikertzaileak) aritu ahal izango da Prebentzio Zerbitzuarekin lankidetzan aholku emateko eta prestakuntza planak osatu, antolatu eta emateko. Era berean, Prebentzio Zerbitzuarekin elkarlanean aritu ahal izango dira arloan ospea duten beste profesional edo erakunde batzuk ere, aholku edo/eta prestakuntza emateko.

Seigarrena.- Osasun Arloaren eginkizunak.

1.- Osasun Arloaren eginkizunak dira osasuna zaintzeko beharrezkoak diren zereginak betetzea, bai eta ergonomia eta psikosozioologia aplikatuarekin lotutakoak ere.

EHUko Prebentzio Zerbitzuak, osasuna zaintzeari dagokionean, honakoak izango ditu oinarri: prebentzio zerbitzuen osasun jardueri buruzko araudia (uztailaren 27ko 306/1999 Dekretua; 1999ko abuztuaren 20ko EHAA, 159. zk.) eta ergonomia eta psikosozioologia aplikatuari buruzkoa. Arlo honen eginkizunak, beraz, honakoak izango dira:

a) Osasuna zaintzea eta sustatzea

- osasun azterketak egitea.

- osasuna zaintzeko hartutako neurrien bidez eta arriskuen ebaluazioaren ondorioz lortutako emaitzak aztertzea.

- haurdun edo erditu berri dauden emakumeek eta egoera jakin batzuetan aparteko sentikortasuna duten langileek dituzten

arriskuen azterketak egitea.

- lehen laguntzak antolatzea eta ematea; larrialdiak antolatzea eta egoera horietan laguntza ematea.

b) EHUko langileen osasunarekin zerikusia duten faktoreen ondorioz eragindako lan husteak gestionatzea eta kontrolatzea, eta hori horrela egingo da helburu bakarrarekin: gaixotasuna edo laneko huts egitea eragin duen faktorearen eta lan-guneak osasunerako izan dezakeen arriskuaren artean izan daitekeen lotura aztertzea.

c) Zaintza epidemiologikoa.

d) Giza harremanak, estresa eta depresioa.

e) Laneko baldintzak antolatzea, lanpostuen diseinua egitea, esfortzuz mugak eta laneko ingurugiroa.

f) Lortutako emaitzak aztertze.

g) Agintzen dizkioten antzeko beste eginkizun batzuk, bai eta indarreko araudian zehaztutakoak ere.

Behar bezalako akreditazioa eta baimena duten zentro espezializatuekin azpikontratatu daitezke zerbitzuko oinarrizko osasun jardueraz gaindiko zenbait jarduera, esaterako, diagnostikorako osagarrizko teknikak.

Zazpigarrena.- Arlo Teknikoaren eginkizunak.

a) EHUko zentroetako arriskuen ebaluazioa egitea.

b) Osasun arloarekin zerikusirik ez duten prebentzio jarduerak planifikatzeaz gain, horretarako beharrezko diren programa eta planak egitea.

c) Istripuak eta ezbeharrak ikertzea, arrazoiak zeintzuk izan diren jakiteko eta, aurrerantzean, horiek saihesteko.

d) Ikuskaritza lana egitea.

e) Industriako segurtasun eta higienaren arloko estatistikak egitea.

f) Jarduera zuzentzaileak proposatzea.

g) Larrialdietarako planak diseinatzea eta planak egiteko lanak koordinatzea.

h) Arlo honetako prestakuntzarako proposamenak egitea.

i) Ikuskaritza teknikoak eta gestiokoak egingo ditu, adibidez: prozeduren

kontrola, praktika operatiboak, segurtasuneko arauak, obra berriak.

j) Indarreko araudiari jarraituz izan ditzakeen beste batzuk.

2.- Arlo teknikoak laneko segurtasunarekin lotutako prebentzioarekin eta industria higienarekin zerikusia duten eginkizunak izango ditu, eta zeregin batzuetarako behar bezala akreditatutako edo baimendutako zentro espezializatuak azpikontratatu ahal izango ditu.

Zortzigarrena.- Prebentzio Zerbitzuko buruaren eginkizunak.

1.- Prebentzio Zerbitzuko buruari honakoak dagozkio:

a) Prebentzio Zerbitzuko arlo biak koordinatzea eta zuzentzea.

b) EHUⁿ osasuna sustatzeko eta laneko arriskuak prebenitzeko beharrezko diren jarduerak bultzatzea.

c) Langileentzako informazio programak eta prestakuntza planak egitea.

d) Arriskuen ebaluaziorako prozesua zuzentzea.

e) Neurri zuzentzaileak planifikatzea eta ezartzea, batez ere, EHUko beste zerbitzu batzuk ere parte hartu behar dutenean.

f) Prebentzio Zerbitzuan sortuko diren erregistro guztien gestioaren eta zaintzaren ardura izatea.

g) Laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta beharrezko diren jarduerak egitea, gerenteak gainbegiratuta.

h) Prebentzio Zerbitzuaren urteko txostena egitea.

i) Prebentzioko neurriak ezartzeko lehentasunak zehaztea eta neurri horien eraginkortasuna kontrolatzea.

j) Prebentziorako eskuliburuak eta prozedurak argitaratzeko eta banatzeko lanak zuzentzea.

k) Prebentzio Zerbitzuaren web gunea zuzentzea eta gainbegiratzea.

Bederatzigarrena.- EHUko ikastegien parte hartzea.

1. EHUko ikastegietako dekanok eta zuzendariak, administratzaileekin batera, honako zereginak dituzte:

- a) Ikastegian batzorde bat eratzea Prebentzio Zerbitzuarekin lotuta Gerentziak zehaztutako programa eta sistemak ezartzeko, horien bidez laneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak eta araudia betetzeko.
- b) Ikastegiko langileen kexu, eskaera eta iradokizunak konpontzea. Zailtasun teknikoak edo bestelakoak direla-eta hori posible ez bada, Prebentzio Zerbitzuko buruari emango diote guztiaren berri.

2. Ikastegian istripu edo ezbeharren bat dagoenena, administratzaileak berehala jakinaraziko dio Prebentzio Zerbitzuko buruari, eta horrek, era berean, Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordeari emango dio horren guztiaren berri.

Hamargarrena.- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko kultura zabaltzea.

Kontuan izanda zein sakabanatuta dauden eta zein sare nahasia eraten duten EHUko ikastegiekin, jarduerak antolatuko dira ikastegietako langile batzuek prebentzioaren arloko oinarriko prestakuntza izan dezaten, eta prestakuntza hori oinarri hartuta EHUko gainontzeko langileen artean laneko arriskuen prebentziorako kultura hedatu dezaten.

Hamaikagarrena.- Campuseko errektoreordearen, Ikerketa errektoreordearen, Kalitate katedrako titularraren, Pertsonaleko gerenteordearen eta campusetako gerenteordeen jarduerak.

Aipatutako errektoreordeek, gerentearekin batera, eta kontuan izanda bakoitzaren eskumenak, laneko segurtasun eta osasunaren arloko eta ingurugiroaren arloko baldintzak hobetzeko beharrezko diren jarduerak zehaztuko dituzte.

Jarduera horien gestioa campuseko gerenteordearen edo Pertsonaleko gerenteordearen ardura izango da, kontuan izanda bakoitzak dituen eskumenak. Lan hori Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egingo dute.

Campuseko gerenteordearen kasuan, aipatutako gestio lana Prebentzio Zerbitzuko buruarekin elkarlanean egiteaz gain, osasun arloak eta arlo teknikoak campusean dituen kideen laguntza ere izango du.

Kalitate Katedrako titularrak eta campusetako Kalitate Programak

bultzatzeko zuzendariak, beren jardueren esparruan, lehentasuna emango diete EHUko laneko segurtasun eta osasuna eta ingurugiroa hobetzeko jardueri.

Alor honetako erabakiak hartzeko eta gestioa egiteko, aipatutako agintariak beren eskumenen arloei dagozkien txostenak eska diezazkiokete Prebentzio Zerbitzuko buruari.

Hamabigarrena.- Campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeak.

Prebentzio Zerbitzuko jarduerak campuseko eta campus arteko laneko segurtasun eta osasunerako batzordeekin elkarlanean egin beharko dira. Prebentzio Zerbitzuari erabaki honen bidez eman zaizkion eskumenak ez dira izango aipatutako batzordeek dituzten eskumenen kalterako, eta, edozelan ere, indarreko araudian, Lan Baldintzak Arautzeko Akordioan, Hitzarmen Kolektiboan eta arloko gainerako araudian zehaztutakoa bete beharko dute.

Hamahirugarrena.- Indarrean sartzea.

Erabaki honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Manuel Montero
Errektorea